

1. ULERMENA. Irakurri azalpen testu hau.

Maldiva ala Malvina uharteak? Zer-nolako nahastea!

Munduko agintaririk boteretsuenak ere nahasi izan dira bi herrialde hauen izenekin. Komunikabideetan ere makina bat nahaste sortu izan da. Izan ere, oso antzeko izena dute, baina batzuk Asian eta besteak Ameriketara daude.

Maldivak, Indiako ozeanoan dagoen uharte multzo bat da, Indiaren eta Sri Lankaren hegoaldean. Hain zuzen ere, *Maldivak* 'milaka uharte' esan nahi du sanskrito hizkuntzan. Malvina uharteak, ordea, Ozeano Atlantikoan daude, Argentinako hegoaldean.

Oporretara joateko asmoa izanez gero, adi maletan sartuko beharreko arrokekin! Maldivetan klima tropikala izaten da urte osoan zehar, eta batez besteko temperatura 29-30 °C izaten da. Hotzik ez, baina udan montzoi deritzon fenomenoari esker euria gogoz botatzen du.

Malvinetan, berriz, urteko tenperaturarik altuenak urtarilean izaten dira, batez beste 12-13 °C; hotzenak uztailean izaten dira, 4 °C gutxi gorabehera. Konparazio baterako, Euskal Herrian negua denean, Malvinetan uda da, eta alderantziz. Hobeto esanda, neguko klima dute urtean zehar, lainoa, euria eta haize zakarra ez direlako inoiz falta. Beraz, Malvinetara joateko zira eta botak sartu beharko dira maletan. Maldivetara joateko, ordea, praka laburrak eta pareoarekin nahiko izan daiteke.

Bi herrialdeak ederrak direnez, Eguberrietako oporrak Malvina uharteetarako uztea eta udako oporretan Maldiva uharteetara joatea izan daiteke aukerarik onena, edo alderantziz..

Karramarro, gazteen aldizkaria, 37 (egokitua)

1. 1 Erantzun ulermen galdera hauek. (2,5p)

- Zer testu mota da?
.....
- Zein da gaia?
.....
- Non daude Maldiva uharteak?
.....

- Zer esan nahi du *Maldiva* hitzak sanskrito hizkuntzan?.....

- Eta Malvinak non daude?
.....

- Zer temperatura egiten du Malvinetan?
.....

- Zer eraman beharko genuke udako oporretarako Malvinetara?.....

- Nora joatea gomendatzen digu Eguberrietako oporretan?.....

- Eta nora joatea udako oporretan?.....

- Alderantziz egiten badugu, bidaia ona egingo ote dugu?.....